

Bi sexu-eraso eman dira Nafarroan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 04/06/2024

Pasaden larunbat gauean, Iruñeko Alde Zaharrean, emakume bat bortxatu zuten, eta bestetik, gizon bat atxilotu dute gaur goizaldean Tuteran, genero-indarkeria eta sexu-erasoa egotzita.

Larunbat gauean, 31 urteko emakume batek sexu-erasoa salatu du Iruñeko Alde Zaharreko ostalaritza-lokal batean. Lokaleko langileek eman zieten abisua udaltzaiei, eta biktima entzun ondoren, 50 urteko erasotzailea atxilotu zuten establezimendu horretan bertan. Hala, Nafarroako Unibertsitate Ospitalera eraman zuten emakumea, eta, medikuek artatu ondoren, ertzain-etxera lagundu zioten salaketa jartzeko. Erasotzailea igande goizean eraman zuten epailearen aurrera, eta azken horrek espetxeratzeko agindua eman zuen.

Beste eraso bat Tuteran

Bestalde, 54 urteko gizon bat atxilotu dute gaur goizaldean Tuteran, genero-indarkeria eta sexu-erasoa egotzita.

<https://eh.lahaine.org/bi-sexu-eraso-eman-dira-2>